

## UR SAKONAK

Itsas azaleko urak etengabe dira mugitzen, itsasoa bare-bare egon ala ekaitz gogorrek astindu; une berean ur sakonak geldi iraun dezake, ilun eta lodi. Euskal auziari irtenbideak bilatzeari buruz, bertako politiko, bakezale, irakasle eta enparaei aditzen diedanean azaleko urei eragin besterik ez dutela egiten iruditzen zait maiz. Ez borondate txarrik daukatelako (ez beti behintzat), azaleko olatuei so, sakonera bidaiatzeko gaitasuna galdu dutelako baizik. Bake bidea gatazka politikoarekin lotu behar da gaur, bihar ez. Eskubideak eta proiektu politikoak gauza ezberdinak dira gaur, atzo ez. Euskaldunon arteko gatazka da hau orain, Euskal Herriaren eta Espainiaren artekoa gero, Frantziar ere akordatzen dira geroago. Independentzia, autodeterminazioa, autonomia, terrorismoa, indarkeria, zapalkuntza, xenofobia, hilketa, garbiketa, genozidioa, askatasuna, justizia, eskubideak... bakoitza bestearen aldean ongi kokatu ezinik ibiltzen dira, diskurtsoak sugeak larrua baino maizago aldatuz.

Ipar Amerikako estatubatarrei adimen sinpletasuna leporatzen zaie maiz. Baina horretxek eta beren pragmatismo ezagunak itsasoan sakonera, arazoan muinera zuzenean jotzeko gaitasun apartaren jabe egiten ditu askotan. Dave Bieterrek eta Pete Cenarrusak geure *adituen* analisiak aintzat hartu balituzte ez zuketzen proposamen argirik egitea lortuko. Baina lortu dute eta bete-betean asmatu: bortxakeriak amaitu, bake prozesua abian jarri eta autodeterminazio-eskubidea aitortu. Ur sakonetara jo dute eta espainiar diplomaziaren indarrak oldartu zaizkie. Euskal diplomaziaren sostengua, ordea, ez dute gertu sentitu. Ez baitago euskal diplomaziarik. Egunerokotasunean murgilduta segitzen dugu, etorkizunerako habe sakonak lantzeari muzin eginda. Idahoako artzainen seme-alabek eman behar izan dute nazioarteko lehen urrats ausarta. Itsas ur azalen mugimendu nahasiak liluratzen ez dituelako izango da.